# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 5508

*1871/2022 EBAZPENA, azaroaren 24koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez María Soledad Blanco Sesma andrea izendatzen den Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko Ekonomiako Eta Finantzako zuzendari.*

Ikusita Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko Ekonomiako eta Finantzako zuzendari lanpostua betetzeko deialdia, Zuzendaritza Nagusi honen urriaren 13ko 1627/2022 Ebazpenaren bidez argitaratua (urriaren 27ko EHAA).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da; lanpostu horretan jarduteko izangaiek aurkeztu dituzten agiriak aztertu dira, eta haien baldintza profesionalak baloratu dira aurkeztutako merezimenduen arabera.

Aurkeztutako agiriak aztertu ondoren, ikusi da María Soledad Blanco Sesma andrea deialdiko lanposturako aproposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela.

Hori guztia dela-eta, Zuzendaritza Nagusi honek,

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– María Soledad Blanco Sesma izendatzea Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko Ekonomiako eta Finantzako zuzendari.

Bigarrena.– Izendapen honek 2022ko abenduaren 12tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 24a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.